

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak Bortzirietako biztanleen historia klinikoak partekatuko dituzte

Marta Vera Osasun kontseilaria Jon Drapón Euskal Autonomia Erkidegoko bere homologoarekin elkartu da gaur Iruñean.

Miércoles, 08 de enero de 2014

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak lankidetzaren hitzarmen bat adostu dute gaur goizean Iruñean bi administrazioek Bortzirietako herrietako biztanleen historia klinikoak partekatzeko: Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka..

Hitzarmena Juanjo Rubio Osasunbideko zuzendariak eta Jon Etxeberria Osakidetzakoak

sinatu dute Nafarroako eta Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-departamentuetako ordezkariak izan duten bileran. Bileraren buru izan dira departamentu horietako arduradun nagusiak, hots, Marta Vera eta Jon Drapón.

Gertutasun geografikoa eta errepideen loturak direla-eta, aipatutako herrietako biztanleek osasun-arreta Osakidetzaren laguntza-sarekoak diren zerbitzuen erakundeetan jaso ohi dute. Horregatik, eta arretarik onena eskaintzeko, bi administrazioek egokitzat jo dute osasunaren alorrean lankidetzaren eta kooperazioaren indartzea.

Zehazki, Osakidetzak konpromisoa hartu du aipatutako herrietako pazienteen historia klinikoaren eskuratzeko baimena emateko. Osasunbideak, aldiz, Osakidetzako profesionalei Bortzirietako herrietako biztanleen historia klinikoetarako sarbide osoa ematea hitzartu du, Osakidetzaren baliabideak erabili izan diren edo erabiliko diren laguntza-kasuetan.

Hitzarmena behar bezala betetzen dela ziurtatzeko, jarraipena egingo duen batzorde bat sortuko dela ere jasotzen du akordioak, sor daitezkeen zalantzak ebatzi eta hitzartutakoaren aplikazioa sustatuko duena. Akordioak urtebeteko balioaldia du eta automatikoki berrituko da.

Akordioa bi administrazioentzat interesgarriak diren gaiak eztabaidatzeko egin duten lan-saio batean izenpetu da. Bileran, Nafarroako Gobernuaren aldetik, Cristina Ibarrola Osasuneko zuzendari nagusiak, Victor Peralta NOGeko zuzendariak eta Fernando Balduz Osasunbideko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendariak ere



Bortzirietako biztanleen osasun arretari buruzko hitzarmena izenpetzen.

parte hartu dute. Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkarien taldea osatu dute Guillermo Viñegra Osasun Saileko sailburuordeak, Beatriz Artolazabal Osakidetzako zuzendari ekonomiko-finantzarioak eta Antonio Arraiza Osakidetzako Osasun Laguntzako zuzendariak.

Bileraren hasieran, Nafarroako laguntzarako laborategiak batzeko eta Osasunbideko biltegi bateratuaren proiektuak azaldu dituzte. Bazkaldu ondoren, berriro elkartu dira eta bi administrazioek gauzatutako Ospitale Farmaziako osasun-gastua arrazionalizatzeko politikak, Plan Soziosanitarioaren barruan burututako ekimenak eta emaitza eta adierazleetan oinarritutako ebaluazio-sistemak bateratu dituzte.